

Milurteko berrirako asmakizunak

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Milurteko berri hau Internet eta informatikaren aroa izango dela esan ohi da. Gure eguneroko bizitzan ordenagailuek eta telekomunikazio-sareek izango duten garrantzia neurtzea zaila da, baina azken aldi merkatura agertzen ari diren produktu berri guztiak etorkizun horri begira daudela dirudi. Informatika gure bizitza errazteko dela diote, eta lan hori egingo duten periferikoak sortzen dira egunero. Hona hemen 2000. urte honen hasieran ikusiko ditugunetariko batzuk.

Usainak ordenadorez: iSmell

Askotan entzundako ametsa da hau: usainak elektronikoki transmititu ahal izatearena. "Digiscents" enpresaren fundatzaileek sortu duten periferikoari esker amets hori errealtate bihurtu da. Beren asmakizuna iSmell bataiatu dute. Aparatu honek ordenagailuak transmititzen dizkion kode batzuk ulertu eta kode hauek adierazitako usainak zabaltzen ditu. Sistema honen sortzaileek bazekiten 1.000 proteina inguru direla garunari usain-sentsazioa sortzeko gai direnak.



ARTXIBOKOA

Nahikoa da, beraz, proteina hauekin konbinazioak egitea usainak sortu ahal izateko. Beren ikerketaren ondorioz proiektua honela egin dute: usain errealak oinarritzko usainetan zatitu dituzte. iSmell-ak oinarritzko 128 usain erabiltzen ditu, eta softwarearen bidez usain horiek konbinatu egin daitezke usain errealak sortzeko. Erabiltzaileak artistaren modura usain-paleta erabiliko du, marrazketa-programetan kolore-paletak erabiltzen diren bezala, eta paleta hori erabiliz usaina sortuko du. Periferikoak softwareak bidaltako oinarritzko usainen konbinazioa ulertu, eta horren arabera substantzia kimiko batzuk konbinatu eta askatuko ditu. Horrela usainak sortuko dira. Sistema hau erabiliz, Internet bidez usainak bidaltzeko aukera egongo da, eta ordenagailu-joko eta CD-ROMetan usai-

nak erabili ahal izango dira. Horretarako iSmell-aren sortzaileak hasiak dira Sega, Nintendo eta abarrekin hitz egiten. Hau ez da, ordea, negozio honek duen aurpegi bakarra. Internet-en usain-bankuak sortu dituzte jada, jendeak usainak erosi ahal ditzan: laranja-usaina, txokolate-usaina edo ke-usaina salgai daude dagoeneko. Zinera ere eraman nahi dute beren asmakuntza, baina arazoa beste bat da arlo honetan: usaina sor daiteke filmaren une jakin batean, baina usain hori aretotik nola desagerrarazi berari zegokion sekuentzia amaitu denean? Medikuntzaraino ere irits daiteke asma-kizun berri hau, aromaterapia delakoa ordenagailu bidez egin ahal izango delako, Internet-eko web orri batetik, edo CD-ROMa erabiliz. Informazio gehiago: www.digiscents.com

Internet-erako urruneko agintea

Internet-ek eguneroko bizitzan duen garrantziaz jabeturik, nabigatzea erraztuko digun urruneko agintea sortu berri dute. Aginte hau 40 botoi eta txartelen irakurgailuaz dago horniturik. Horrela, botoi bat sakatuz bisitatu nahi dugun web-era zuzenean joan gaitzake. Gure ordenagailura beste edozein periferiko bezala konektatzen den aginte honek, web helbide ugariaren sailkapena eskaintzen digu. Sailkapen hau guk nahi dugun erara eta nahi ditugun helbideekin eguneratu dezakegu. Gainera, erabiltzaileen arabera pertsonaliza dezakegu.



Internet-erako urruneko aginteak 40 botoi eta txartelen irakurgailua ditu.

Honez gain txartelen irakurgailua ere badauka Egopad izenez bataiatu duten aginte honek. Irakurgailu honek ez ditu kreditu-txartelak irakurtzen, propaganda-txartelak baizik. Sistema honetaz baliatuz, hainbat konpainiak, beren web-erako lotura zabaldu dezakete, jendeak txartela Egopad-ean sartu bezain pronto, konpainia horren web gunera konektatuko bailitzateke helbidea idatzi behar izan gabe. Aldizkari, egunkari eta antzekoekin banatzeko moduko propaganda modu egokia da. Informazio gehiago: www.planetportal.com

Saguaren arerioa: Handkey-a

Sagu arruntaren arerio handiena katua izan bada ere, sagu elektronikoari bestelako bat sortu zaio: Handkey-a. Ekuadorko gazte batek asmatutako eraztun bati buruz ari gara. Bere esanetan, eraztun honek ordenagailua kontrolatzen laguntzen digun sagua ordezkatzeko du oso



denbora gutxian. Handkey izeneko hau hatz nagian kokatzen den 1,5 cm-ko luzera eta 0,5 cm-ko lodiera duen eraztuna da. Kablerik gabe dabil, ordenagailuari jartzen zaion pantaila babeslera gidatuta izpi infragorrien bidez konektatzen baita ordenagailuarekin. Sistema honek erabiltzen duen teknologia, gaur egungo ordenagailuek dutenarekin bateragarria omen da. Edozein ordenagailuarekin erabil daiteke, beraz.

“informatika gure bizitza errazteko dela diote, eta lan hori egingo duten periferikoak sortzen dira egunero”.

Lau urte eman ditu Antonio Romero ekuadortarrak gailu hau garatzen, eta aurtengo udaberrian merkaturatuko omen du Estatu Batuetako enpresa baten bidez. Ikusiko dugu gure ordenagailuaren sagua jango duen katua hau den ala ez.

Jertse informatizatua

Pentsa ezazu zure medikua egun osoan bizkar gainean eramaterik baduzula. Antzeko sistema asmatu dute duela gutxi: gure osasuna zaintzen duen jertse informatizatua. Jertse honek, gure gorputzaren martxari dagokion informazioa jasotzen du etengabe: gure bihotz-taupadak zenbatekoak diren, arnasaren erritmoa, etab. Informazio guztia gerrikoan lotuta



Jertse informatizatua gure osasunaren egoera jasotzen du etengabe.

daramagun ordenagailu txiki batean gordetzen da. Gerrikoan bildutako informazioa, Internet bidez web batera bidaltzen da, eta bertan dauden medikuek, erabiltzailearen osasunean egon daitezkeen aldaketak kontrolatzen dituzte. Sistema hau, Marvin Sackner doktoreak asmatu du, eta bere esanetan “persona lanean ari den bitartean, estres-egoeran edo etxean lasai-lasai eserita dagoen bitartean nola dagoen jakin dezakegu”. Informazio gehiago: www.lifeshirt.com

Hauek dira milurteko berri honen hasieran saldu nahi dizkiguten berrikuntzeta-ko batzuk. Badira beste hainbat, guztiak esan bezala ordenagailuak eta Internet elkartzeko dituztelarik; egia esan, gaur egun nahiko zaila baita bi kontzeptu horiek bereiztea. Horietako batzuetaz ere hitz egin dugu lehenago hemen (ordenagailu molekularraz, edo posta elektronikoa kudeatzen duen telebistaz esate baterako), eta nola ez, Internet-en eskaintzen ari zaizkigun zerbitzu berriak: on-line erre-zatzeko aukera, eta baita hiletak Internet bidez egiteko aukera ere. Hamai-ka ikusteko jaiok omen gara, baina hau hasiera besterik ez da. □